



Bergara, 2021eko azaroaren 23a

PRENTSA OHARRA

Begarako Udal Gobernuak 2022ko aurrekontuetan EAJ-PNVrekin hartutako konpromisoen inguruko argipena

2022. urteko udal aurrekontuen lanketan Begarako Udal Gobernuak EAJ-PNVrekin hainbat konpromiso hartu zituen. EAJ-PNVren udal taldeak 2022ko azaroaren 23an konpromiso horien betetzearen inguruan hedabideei emandako informazioaren inguruan hainbat gauza argitu nahi ditu Udal Gobernuak, ez-ezagutzak edo beste zerbaitek eraginda, emandako informazioan zuzenak ez diren hainbat gauza aipatzen baitira.

Udal Gobernuaren ustez bergararrek merezi dute udal ordezkarien aldetik informazio zuzena jasotzea, eta, halaber, ordezkari instituzionalei dagokie herritarrek seriotasunez tratatzea, eta zuhurtziarekin jokatzeko, eta ez okerrak diren informazioak zabaltzea. Hori horrela, akordioan jasotzen direnak puntuz puntu argituta:

- *Udal eskumenen barruan Begarako jaiotze-tasa igotzeko egin daitekeenaren inguruko azterketa egiteko 10.000€-ko diru izendapena mantentzea eta martxoan aurretik azterketa bideratzea. Bi taldeek urriaren 5ean egindako bileran ez egitea adostu zuten.*
- *Begararen hileta zibilak egin ahal izateko arautegia berritzeko prozesua martxan egonda, horretarako espazio propio egokiak identifikatu eta beharrezko egokitzapen azterketarako 10.000€-ko diru izendapena jasotzea eta beharrezko egokitzapenetarako 80.000€ gerakinetik bideratzeko konpromisoa hartzea. Eraikina egokitzeko diru partida maiatzeko osoko bilkuratik pasa zen, eta 100.000 euro gehitu ziren. 185.000 euro gorde dira hori egiteko, Laboratorium ondoko antzinako zalditegian. Ordenantza berria ere lantzen ari da.*
- *Martinez de Iralako estalkia hornitu ondoren herrigunean jolas toki estali berri bat egiteko proposamena ontzat emanda gai honen lanketarako talde bat sortu eta exekuziorako gerakinetik 100.000€ bideratzeko konpromisoa hartzen da. Azaroaren 15ean egindako Lurralde batzordean esleitu da proiektua, halaber, lan-taldea sortzea adostu zen, bizilagunekin gaia lantzeko. 100.000 euro 4. kreditu aldaketan bideratu ziren, eta beste 100.000 bideratzea proposatuko da hurrengo osoko bilkuran.*

2021eko azaroko ohiko udalbatzan haur eta gazteek jasandako sexu-abusuen inguruan aho batez onartutako mozioan jasotako konpromisoerantzun asmoz ekimenak martxan jartzeko 7.000€-ko diru izendapena jasotzea eta berariaz lanketa hori bideratzeko taldea sortzea. Sailean artean, elkarlanean heldu zaio gaiari. Proposamen ezberdinak aztertu ostean, hezkuntza mahaiari azaroaren 28an gaia lantzeko proposamena egingo zaio; proposamen honek ikastetxeetan trebakuntza emateko aukera barne biltzen du, eta aldi berean gai honetan hezkuntza komunitatea sentsibilizatzen hastea ekarriko du.

- *Hirugarren adinera bideratutako etxez-etxeko zerbitzua gaueko zerbitzura zabaltzeko aukera aztertzeko konpromisoa hartzea: zerbitzuaren beharra, egokitasuna, bideragarritasuna, balizko baldintzak... aztertu ondoren garatzea erabaki ezker 2022. urteko aurrekontuari begira garatu ahal izateko. Zerbitzua martxan dagoen beste udal batzuetan informazioa eskatu da, lanketa hasita dago, hortaz.*
- *Kartera maparen garapenerako baliabideak doitzea: 2021eko aurrekontuetatik konprometituta geldituko liratekeen 100.000€-taz gain, 2022. urterako 75.000€ eguneko zentro arineko zerbitzua eskaintzera bideratzea, eta beste 25.000€ karteraren garapenerako hainbat ekintza bideratzera. Mankomunitatean kartera garapenerako lanketa bultzatu eta beharrezkoak izango diren hitzarmen eta akordio markoak bultzatzeko konpromisoa erakusten dute bi aldeek. Gizarte Zerbitzuetako karteraren garapeneraren lanketa Mankomunitatearen esku dago, eta hau aldi berean Foru Aldundiak egiteko konpromisoa hartutako lanketa batek baldintzatuta dago. Gipuzkoa osoan doa motel. 'Arin' dependentzia arina duten adineko pertsoneri bideratutako zerbitzua dagoeneko martxan dago.*
- *Boluko luiziaren ondoren malda egonkortzeko proiektuaren exekuzioa beharrezko dela argi izanda, beharrezkoak diren akordioak bideratu eta proiektuak jasotako 2. fasea exekutatuzeko konpromisoa hartzea. Horretarako beharrezko finantzaketa bermatzeko 200.000€-ko diru-izendapen gehigarria jasotzea 2022ko aurrekontuetan. Bigarren fasea bukatzeaz dago. 2023ko aurrekontuetan hurrengo faserako diru partida gordeko da.*
- *Martoko aldeko urbanizazioaren inguruko lanketa jarraitu, Udalak eskuartean duen aurreproiektua garatu eta proiektuaren idazketa 2022ko lehen sei-hilekoan bideratzeko konpromisoa hartzea. Proiektuaren garapenerako 2021eko gerakinetik 250.000€ bideratzeko konpromisoa hartzea. Martoko bizilagunekin bilera epe laburrean egingo da, eta publikoa da. Bertan jasoko dira urbanizazioari buruz dituzten iritzi eta ekarpenak. Maiatzeko plenotik pasatutako 4. kreditu aldaketan 40.000€ hartu ziren gerakinetik.*
- *Simon Arrieta plaza bizilagun-komunitatearekin batera kofinantzatuta berrurbanizatzeko proposamena lantzeko konpromisoa hartzea, bertako irisgarritasuna eta eraikinen isolamendua bermatu eta ingurua berritzeko asmoz. Lanketa horretarako beharrezko litzatekeen aurreproiektua lantzeko 15.000€ bideratuko dira hirigintzako proiektuak partidatik. Hartutako konpromisoetatik oraindik heldu ez zaion gai bakarra da, bizilagunen ordezkariekin bilera jartzekoa da Gobernua, bizilagunek ere parte hartu beharko lukete berrurbanizazioan. Konponbidea ez da erraza, baina laster hasiko da lanketa.*
- *Elorregi auzoan, besteak beste Gipuzkoako Foru Aldundiko mugikortasun saila, eta Oñatiko eta Arrasateko udalekin elkarlanean komun bat ezartzeko aukera landu eta bergararren interesaren aldeko proiektua izan dadin lan egiteko konpromisoa hartzen da. Lanketa horretan sor daitezkeen gastuetarako gerakinetik 50.000€ bideratuko dira. Maiatzeko plenotik pasatutako 4. kreditu aldaketan 50.000€ hartu ziren gerakinetik. Proiektu teknikoaren lidergoa Oñatiko Udala eramaten ari da, eta Arrasateko, Oñatiko eta Bergarako Udalek eta Foru Aldundiak sinatuko luketen hitzarmen zirriborroa oso aurreratuta dago. Proiektuaren xehetasunak irailean argitaratu ziren hedabideetan.*

- *Zabala Etxeko fatxada balorean jartzeko aukerak aztertzea interesgarria dela iritzita, aukerak aztertzeko 5.000€-ko diru-izendapena jasoko da. Diru-izendapen horretaz gain, 2023rako 40.000€ jarri dira. Fatxadaren kokapen posible bat lantzen ari da udala eta lanketa tekniko-juridikoa aurreratu ahala azalpenak emango dira.*
- *Udala eta udalerrria subiranotasun energetikoaren bidean jartzeko helburua konpartitzen dugu eta bide horretan sendo lan egiteko konpromisoa hartzen dugu, Udala, herritar eta herriko eragileen arteko elkarlana sustatuz. Aurrekontuetan jasota dauden 40.000€-ko partidaz gain, 2021eko gerakinetik 110.000€-ko gutxieneko bat helburu hauetara bideratzeko konpromisoa hartzen dugu. 2022an gutxienez 150.000€. Berener Bergarako Energia Komunitatea sortzear da EHUNDUren bitartez. Horrez gain, Agorrosin kirolguneko teilatuan eguzki plakak jartzeko lanketa hasita dago. Maiatzeko plenotik pasatutako 4. kreditu aldaketan 110.000€ hartu ziren gerakinetik. 150.000€ko partida osatuz.*